



Lo egon arren amets mendean
 esnatu gera jau pozal
 aizeak dakar mendi barrendik
 kuku berritsuan otsa;
 neguak utzi gaitu, ta digu
 udaberriyak ill, otza,
 arrazoi onen indarrez zaigu
 gaur pozdun jantzi biyotza.

Begira nola datorren pozik
 oierki ederran ama,
 ta pozik goaz beraren billa
 ez keñiz loreak bana;
 atoz Erato, atoz lenbailen
 aguro xamar gūgana
 emen da noski gaur etorriya
 aizpa Euterpe zugana.

Len ill ziranen illoi gañetan
 ipin ditzagun loreak,
 estalpe argi leyarrezkuan
 egon diranak gordeak;
 ayen antzeko gizonik ez du
 noiz nai ordaitzen urreak,
 atzea nola dantza bear dan
 erakusten du aurreak.

Astibia ta Xenpelar ziran
 Erato—n seme jatorrak,
 lur pean daude, bañan ala—re
 ez ditu jango zatorrak;
 oek ez dira gerora ere
 izango noski azkorrak,
 zergatik ziran pake zaleak
 ez borrokari naskorrak.

Lore berexi ederrez orain
 apain ditzagun illoyak,
 lan ontan noski lagunduko du
 Erato—n baratz morroyak;
 ayen jabea lurra zan lendik
 orain jaso ditu loyak,
 edertu bitza koro on banaz
 eguzki toki dan goyak.

¿Nola metzen du urpez arrayak
 teinkaka dabilkin tantza?
 ala berean suan indarrez
 beroak urtzen du gantza;
 noski badute Eratok eta
 Euterpek elkarren antza,
 olerkiya da oyen baratza
 Tersipkorena da dantza.

¿Errenteriya ikutu gabe
 nora joan niteke, nora,
 baldin aurdaroz egin nituen
 gauzak bazaizkit gogora?
 ¿nola txoriyak jaso oi ditu
 ale goxuak mokora?
 ala nik ere sartu nai det gaur
 eskua aman kolkora.

Nere ama da Errenteriya
 beraren seaska kabi,
 maindire txuri berak landuak
 jarri zizkidana garbi;
 ¿zerk egiten dit dizdiratuaz
 nere begiyetan argi?
 Magdalenaren sudur albotan
 ikusten ditut izar bi.

Galtzen ari zait usterik gabe
 gogoz asi detan gaya,
 bakarrik usten zaitut or bertan
 lagun izan zeran maya;
 Errenteriya pallakutzia
 iran da Erato—n naya,
 argatik digu eman guretzat
 lenengo olerki jaya.